

Bertaratutako kideak:

Pablo Arriazu Amat

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Gil Sevillano González

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Santiago Álvarez Folgueras

Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen ordezkaria (HERRIKOA)

Ignacio Catalán Librada

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Francisco Javier Martínez Domingo

Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen ordezkaria (HERRIKOA)

Teresa María Arriaga Iraburu

Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkaria

Ignacio M^a Iraizoz Zubeldia

Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate titularren ordezkaria
(ANEG-FERE)

José Paulos Vázquez

Ikastetxeetako Administrazioko eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria

Sonia Rivas Borrell

Unibertsitateen ordezkaria
(Nafarroako Unibertsitatea)

Mari Luz Sanz Escudero

Nafarroan desgaitasuna duten pertsonen ordezkaria (CERMIN)

Jesús Basarte Galbete

Enpresarien elkarten ordezkaria

Luis Calatayud Yuste

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Eneka Maiz Ulaiar

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria

Iruñean, 2024ko azaroaren 15eko 17:00tan, Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkura edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia bildu da Nafarroako Eskola Kontseiluaren egoitzan, Manuel Martín Iglesias kontseiluburu dela, alboan adierazitako kideak bertan direla, eta Antonio Iriarte Moncayola idazkari dela, honako gai-zerrenda honekin:

1. Hezkuntzako kontseilariaren agurra.
2. Aurreko bileraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.
3. Lehendakariaren informazioa.
4. 2024-2025 ikasturteko aurrekontuaren aurreproiektua
5. 2024-2025 ikasturteko lan-planaren zirriborroa.
6. Galde-eskaerak.

Roberto Pérez Elorza

Ikastetxe publikoetako zuzendarien
ordezkaria

Josu Reparaz Leiza

Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate
titularren ordezkaria

(Nafarroako Ikastolen Elkartea)

Arantxa Ruiz Vidorreta

Ikastetxe publikoetako irakasleen
ordezkaria (STEE-EILAS)

Cristina Bayona Saez

Unibertsitateen ordezkaria (NUP)

José Jorge Lanchas Rivero

Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate
titularren ordezkaria (ANEG-FERE)

Maite Kötter

Ikasleen gurasoen elkarteen federeazioen
ordezkaria. (BRITILA)

Pilar López Valderrama

Ikastetxe Pribatuetako Irakasleen
ordezkaria (FSIE-SEPNA)

María Teresa Módol Betriu

Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen
ordezkaria (CONCAPA)

Beatriz Martinez Abadia

Sindikatuaren ordezkaria (UGT)

María Fernanda León Jiménez

Berdintasunaren alde lan egiten duten
elkarteen ordezkaria.

M^a Soledad Garjón López

Ikastetxe Publikoetako Irakasleen
ordezkaria (AFAPNA)

Koldo Sebastián del Cerro

Aitortutako ospea duen pertsonalitatea

Carlos Rodrigo Guerra

Ikastetxe Publikoetako Irakasleen
ordezkaria (ANPE)

María Jesús Salanueva Uriarte

Ikastetxe Pribatuetako Irakasleen
ordezkaria (FETE-UGT)

Ez dira bertaratu:

Sonia García Cifuentes

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

María Inmaculada Jurío Macaya

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria

Eneko Elizari Aldaia

Ikasleen gurasoen elkarteen
federazioaren ordezkaria (SORTZEN)

Antonio Angel Moleón Segura

Toki entitateen ordezkaria

Ladis Satrustegui Alzugaray

Toki entitateen ordezkaria

Lehendakariak hitza hartu du eta ongi etorria eman die Nafarroako Eskola Kontseiluko kide berriei.

1. Hezkuntzako Kontseilariaren agurra.

Hezkuntzako Kontseilariak eskerrak eman dizkio Nafarroako Eskola Kontseiluari 2024-205 ikasturteko Kontseiluaren jardunari hasiera emateko gonbiteagatik.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkurari egindako gogoeta batzuk ere aipatu nahi ditu; zehazki hauek:

- Jasota utzi nahi ditu bere eskerrak, pandemian zehar estatu eta mundu mailan gertatutako inguruabarren ondoren, ikasturtearen hasiera berri bat aurrez zehazten duten jarraibideekin jarraitu ahal izateagatik.
- Beharrezkotzat jotzen du Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkurari jakinaraztea ikasturte berriko aldaketak egiturazkoak direla, eta horien artean esan dezakegu 0-3 urteko zikloa doakoa dela, eskola-jantokiei buruzko araudi berri bat idatzi dela 175 eskola-eguneko zerbitzuarekin, Eurostaten datuen arabera, Nafarroako Lanbide Heziketako ikasleek %100eko lan-okupazioa dutela ikasketak amaitzean, eta eskola-uzte tasa txikiena duen Estatuko Erkidegoa garel.
- Adierazi nahi du, azken egunetako lan aldarrikapenei dagokienez, zeinen artean erabat errespetagarria baita aldarrikapen horiek erabiltzeko eskubidea, bere ustez ezin direla lan aldarrikapen horiek Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntzaren egoerarekin nahastu, bere ustez egoera oso onean baitago eta oso aukera onak baititu etorkizuneko garapenari begira.
- Gonbidapena eskertu eta agurtu da Nafarroako Eskola Kontseiluko Osoko Bilkurako kideei.

2. Aurreko bileraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.

Kontseiluburuak kideei galdetu die ea baduten alegaziorik edo iruzkinik aurreko bileraren aktari buruz.

Akta onetsi da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

3. Kontseiluburuaren informazioa.

Kontseiluburuak Nafarroako Eskola Kontseiluak 2024ko ekainaren 18tik azaroaren 25era bitartean izandako jardueraren berri eman du.

4. 2024-2025 ikasturteko aurrekontuaren aurreproiektua.

Lehendakariak aurreproiektuaren edukia azaldu du eta onartzeko eskatu du.

Proposamena onartu da, bertaratutako kideen baiespenez.

5. 2024-2025 lan-planaren zirriborroa.

Lehendakariak Nafarroako Eskola Kontseiluaren Lan Planaren edukia azaldu eta onartzeko eskatu du.

Eneko Maizek hartu du hitza, eta adierazi du iaz 0tik 3ra bitarteko jardunaldi bat sartzea eskatu zutela, baina ez zutela erantzunik jaso, eta Lan Planean ez dela saru.

Lehendakariak adierazi du eskaerarekin ados dagoela eta ahal den neurrian lan-plan honetan egiteko aukera emango duela.

José Paulos jaunak planetaren muga biofisikoei buruzko jardunaldi bat egiteko eskatu du, era berean, gai hori hezkuntza-sisteman sartzeko eskatu du.

Lehendakariak adierazi du Hezkuntzako Kontseilariak hala uste badu hezkuntza-sistemaren edukian sartuko dela.

Arantxa Ruizez Bullyng-ari buruzko jardunaldiaren “gianditu” esamoldea aldatzeko eskatu du, “ezabatu” esamoldeagatik.

Proposamen horri buruzko eztabaida egin da, eta erabaki da jardunaldia zehazteko unean erabakiko dela.

Proposamena onartu da, bertaratutako kideen baiespenez.

6. Galde-eskeak.

José Paulos jaunak hartu du hitza, eta adierazi du ez dagoela ados Hezkuntza Kontseilariak pleno honen irekieran adierazitakoarekin, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei dagokienez aurreko beste une batzuekin alderatuta atzerakada nabarmena gertatzen ari dela uste baitu, eta eskatu du ikasle horiei arreta ematen dieten langileak funtzionarioak izatea, eta ez aldi baterakoak.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, kontseiluburuak osoko bilkurara bertaratu diren kideen parte-hartzea eskertu du, eta bilera bukatutzat eman du 18:03etan, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.